

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

549. zkia.

XIII. urtea

2005eko azaroaren 4a



Irune Zubiaurre, Olabariako karting-zirkuituko zuzendaria

**«Ander Vilariño Olabariako
zirkuituan egin da pilotu»**

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Zure logela aukeratzekoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.

Gure erakusketara bisita ezazu!

sonapura



multisac®



Mustisac-ekin INDEPENDENTZIA, bi pertsonak ohe berean egin dezakete lo erosotasun eta independentzia osoz, ohe ezberdinetan egongo balira bezala.

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



ALAITZ VIVES



UNAI VILLENA

ZOZOAK BELEARI...

Atzo iluntzean telebista aurrean eseri nintzen kablez betetako pantalla brillanteari begira pitonisak kristalezko bolari begiratzen dion bezela. Tresna itsusi horrek horrenbesteko boterea izan dezakeenik ere! Izan ere, azken boladan telebistak gure inguruan gertatzen diren gertakizun askoren errua duela entzuteaz harrituta nabil.

Zera egin genezake, Unai: telebista "zuritu". Ez dadila telebistan bortxakeria konturik ageri, ez eta bullying edota eskolako jazarpen konturik ere. Kanpora sexu, droga eta indarkeria irudi guztiak. Albistegi zuri-zuriak egingo ditugu. Horra hor irtenbidea, ala? Eta zer gertatuko litzateke esaterako, telebistako programazio osoa "zuritu" ostean gure 10 urteko alabak eta bere lagunek aisialdiko monitorea iraindu eta jipoitu dutela jakitean? (zoritxarrez, hau ez da kontakizuna apaintzeko muturreraino eramandako adibidea, duela bi asteberu Sestaon gertatutakoa baizik).

Ez nauzu egungo telebista eredu defenatzen ikusiko. Ez da inolaz ere izan genezakeen telebistarik onena, gure gizartea izan genezakeen gizarte eredurik onena ez den bezelaxe. Aitzakia merkea dela esango nuke nik. Hurrengo batean guk telebista kontsumitzaile bezala izan genezakeen "botereaz" hitzegin genezake. Bitartean, errudun nagusi eta bakarra identifikatuta izanda hobeto lo egingo duenik bada... hala bedi!

«Ez nauzu egungo telebista eredu defenatzen ikusiko»

ALAITZ

«Telebistak baino, pantailaren beste aldeak kezkatzen nau»

UNAI

Alaitz, azkenaldian telebistari gertatzen diren gauza askoren errua botatzen zaiola aspaldiko kontua da, eztabaida eterno horietako bat. Elkarrizketa honek ez dauka gaurkotasunik. Igual zu, mundu horretan lan egiteagatik, gertutik ukitzen zaituen gaia da. Eta baita kezkatu ere. Niri ez dit loa galarazten. Gure telebista eredu, gure gizarte eredu eta gure beste eredu guztiak ere, eskutik helduta doaz, eta ez dira izan genitzakeen onenak, ez horixe! Erdipurdikoak dira. Telebista "zuritzearekin" zerbait konponduko al genuke? Argi dago ezetz. Oraindik ez daukat garbi telebistan botatzen duten kaka guztia besterik gabe irensten dugun, edo benetan nahi dugulako botatzen ote duten. Argi daukadana askoren hipokresia da: kaxa tontoa kritikatu dute erakusten dituen irudiengatik, baina eurak izango dira irudi horien kontsumitzaile nagusiak. Gainontzeko drogekin bezalaxe, honekin ere neurrian eta hartzeko moduan dago gakoa: telebista dosi berak ez die berdin eragingo bi pertsona ezberdinei. Ni, telebistak baino, pantailaren bestaldeak kezkatzen nau. Nola ulertarazi, konturatzen ez diren horiei telebistatik era guztietako produktuez gain, bizitzeko eta pentsatzeko erak ere saltzen dizkigutela? Hori bai eztabaidarako gai aproposa. Telebista "zuritu"? Guk berdin jarraitzen dugun bitartean, zertarako? Kaxa tontoa baino tontoagoak gara eta!



ARTALDE BATEKO KIDE AKATSGABEA IZATEKO, LEHENIK ETA BEHIN
ARDI IZAN BEHAR DA

A. Einstein



BARRENen amnesiarik ez:

Duela bi asteko luze zabal atalean esan zen moduan, belaunaldi berriek ezagutu behar dute historia:

Euskal Herriko historiaren bilakaeran sufrimendu asko eta asko egon da, bai alde batetik eta bai bestetik, oraindik ere herritar asko jasaten ari garen sufrimendua. Baina bereizi egin behar dira sufrimendu horren eragileak eta sufrimendu ondorioak.

Sufrimendu garai handi bat 1936an hasi zen, hemen faxismoaren estatu golpea egin zutenean, Estatuko hauteskunde demokratikoen emaitza ez onartzearen. Hortik gerra etorri zen, eta milaka hildako egon ziren, milaka kartzelaratu, fusilatutak, erbesteratutak, zigortutak, etxe eta lurrak galdu zituztenak, dena kendu zietenak (azken asteetan, PNVren eskutik, kultur etxeko erakusketan ikusi ahal izan dugun bezala), eta horrek Arreseren lagunak izan ziren, alkate jarri zutenak, beste asko ezkutuan bilerak egiten eta kartzela arriskuan genbiltzala, garai berean.

Eta hemen ezin dena egin, -egin dezakezue, baina gurekin ez kontatu horretarako-, da historiaren errebisionismoa (hori, egun, Francisco Franco Fundazioko neofrankistek egiten dute bakarrik, orain arte).

Arrese Alkatea baino gehiago izan zen, bai: alkate Frankista, Faxista bat, alegia. Guk dakigunez behintzat 1971an, zinegotzi zenean, 1974an, alkate izan zenean ez zen hauteskunderik egin Euskal Herrian. Eta garai horretan kargu instituzionala zeukatenak ez ziren herritarren nahiaren araberrakoa, Franko hiltzailearen eta zapaltzailearen aldekoak baizik. Eta Arreseren garaian elgoibartar batek baino gehiagok jasan zituen torturak eta palizak, Elgoibarren zegoen koartelillo bertatik hasita, eta Burgoseko prozesuan heriotz zigorrak ezarri zituzten, eta Txiki eta Otaegi ere erahil zituzten. Eta garai horretan ikurrina jartzearen bat baino gehiago hil zuten, eta alderdi politikoak, sindikatuak, herri mugimenduak debekaturik zeuden. Eta BARREN-ek hori ezkutatu egin du. Zergatik?

Hau memoria historiakoaren izenean jasanezina da. Ez dugu ahaztu behar. Ez dugu nahi ahaztu. Eta kultur etxeko erakusketan jartzen zuen bezala, gazteleraz izan arren, "nunca más", berriz ez gertatzeko, historia gogoratu egin behar da, eta inoiz ere ez aldatu. Oraindik Elgoibarko mendietan lur azpian dauden fusilatuen oroimenez bada ere.

Une honetan gatazka politikoa konpontzeko aukerak ireki direnean inoiz baino beharrezkoago ikusten dugu gertakari historikoak bere objektibotasunean aztertzea.

ELGOIBARKO EZKER ABERTZALEA

Zertan da herriko haurtzaindegia?

Oraingoan San Roke auzoan dagoen haurtzaindegia da kezka batzuen iturria. Galdetu eta jakin dugunez, urte asko dira haurtzaindegian obra batzuk egiteko dirua Udalaren esku dagoela, baina hura geldirik dago. Aurten, lehengo Pilarreko eskolaurreko geletara eraman dituzte umeak obra hasi behar zutela-eta, baina han oraindik ez dago inolako mugimendurik. Zenbait gurasoren kexak entzun dira, orain dauden lekua desegokia dela esanez. Horixe da galdera, horrelako obra batek ez al dauka lehentasunik?

C.G. - 72162647-B

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostza, Amaia Gorroategi, Sore Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odira, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe KE, Uruzuno, Unai Willena, Aiaitz Vives **ESABIA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburirik **INPRIMATEGIA** Gerfu **TIRADA** 4.410 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

- Herritar batek esan digunez, **Osasun Zentrotik Madalara doan kalean zuhaitz batzuk falta dira**: “Aurreko batean San Lorentzon zabor kontenedoreak falta zirela esan bagenuen, oraingo honetan hurbilagoko kontuak aipatuko nituzte. Izan ere, Osasun Zentrotik Madalara doan kalean (Bernardo Ezenarro) zenbait zuhaitz falta dira. Kale berria obrak egiten ari zirenean apurto egin zirela dirudi, eta ez dituzte berriro jarri. Osasun Zentrotik ezkerretara, lehenengo hiru zuhaitzak ez daude bere lekuan. Kale amaieran, eskuin aldean, halamoduzko zuhaitz ziztrin bat dago. Gauza txiki horien arretan ikusten da Udalak daukan sentiberatasuna. Ardura handiek ez dezatela xehetasun txikien garrantzia irentsi.”



- Herritar batek esan digunez, **Toletxeko parkea egoera tamalgarrian dago**: “Udalak herriko parke gehienak konpondu ditu, baina Toletxe atzeko parkeari ez dio kasurik egin. Kolunpio guztiak egoera kaxkarrean daude, eta ez daude haurrak jolasean ibiltzeko moduan. Beharbada, parke honetan ez da jende asko ibiltzen, baina gainontzeko parkeetan bezalaxe, hemen jolasten duten umeez ganorazko kolunpio eta jolasak merezi dituzte”.



- Gizonezko batek ondorengo kexa ekarri digu **BARREnera: Artekale kaleko eskailera mekanikoak askotan geldirik egoten dira**: “Ez da denbora asko pasa Artekale kalean eskailera mekanikoak jarri zituztenetik, eta askotan geldirik egoten dira. Ez dakigu norbaitek gelditzen dituen edo izorratuta egoten diren, baina oinez ibiltzea gero eta gehiago kostatzen zaigunok gara azkenean kaltetuenak. Duela zenbait egun emakume bat eskailera oinez igo ezinda zebilen, eta eskailera martxan jartzeko deitu genien giltza edukitzen dutenei. Ordu erdi zain egon ostean, ez zen inor agertu”. Urasandin ere askotan gelditzen dela esan digute: “Urasandin lehenengo zatiko eskailera sarri egoten dira izorratuta. Eskailera mekanikoekin kontu gehiago edukitzeko eskatuko nuke”.



TXALOK

- Herriko musika zaletu batek **Arima Beltza taldea txalotu nahi du**: “Aupa zuek! Nork esango luke hasi zinetenean hain urrun iritsiko zinetenik? Bigarren diskoa kaleratu duzue dagoeneko, eta hau hasi besterik ez da egin. Kultur Etxeko sotoan eskaini zenuten kontzertua bikaina izan zen. Segi horrela!”.

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



URRUZUNOREN Luma

Zapata gorri, uso mezulari...

Geranio petalo arrosak ametsen munduan, hegaka... eta zu, zerura begira! Udazkeneko hosto gorriak lurra maindire gorri bilakatu nahirik, hegaka... eta zu, zerura begira! Hego haizearen epeltasunak dakartzan uso mezulariak trafikorik gabeko zeruan, hegaka... eta zu, zerura begira!

Uso bat zure gusanitos paketearen inguruan geratu da, begira-begira... komunikazio falta ote? Hitzek zentzua galdu dute jolasen munduan, baina begiradek tinko diraute beraien esanahia igorri nahirik. Haurrak eskua luzatu eta bere zorroko gusanito bat eman dio, poliki-poliki aurrean duen usoari... baina usoa beste baten zain geratu da... txikiak muturra estutu eta gusanitoak bereak direla esanez, zapata gorriekin ostiko bat ematen ahalegindu da...

Ni, ordea, zure zapata gorri txikiei so eginez, mugimendu magiko baten zain-zain; lehenengo pauso txikien gatibu... irriño xume baten aiduru. Begira nazazu, eta begiratuko zaitu! Hitzek zentzua galdu arren, begiradek beraien jokua irabazi duten munduan... Pauso bat, bi, hiru...loru duzu!!

Maialen Olazabal



BAI ESAN?


M^o TERE
ARAKISTAIN
KALA LORADENDAKOA

Joan zen asteartean, azaroaaren 1ean, Santu Guztien Eguna izan zen. Egun honetan kanposantura joan eta hildako senideei lorak jartzeko ohitura handia dago. Hori dela-eta, herriko lora saltzaile batengana jo dugu, elgoibartarek lora kontuan dituzten joerak ezagutzeko.

- **Azaroaren 1a gerturaten denean lan gehiago izaten al duzu?** Bai, dudarik gabe, egun hauetan oso lanpetuta ibiltzen naiz. Jendeak erramu eta lorontzi mordoa enkargatzen ditu, eta denek egun bererako nahi izaten dute.
- **Santu Guztien Egunean hilerrira joateko ohitura oraindik mantentzen al da?** Bai, nik uste dut denborarekin ohitura hau galtzen joango dela, baina oraindik, Elgoibarren Santu Guztien Egunean hilerrira joateko ohitura handia dago.
- **Zein da gehien eskatzen duten lora mota?** Denetarik eskatzen didate, baina krabelin gorriak izaten du egun honetarako arrakastarik handiena. Hala ere, kolore guztietako lorak gustatzen zaizkio jendeari.
- **Lora naturalak ala artifizialak nahiago ditu jendeak?** Urtean zehar jendeak lora artifizialak eramaten ditu hilerrira, baina egun honetarako naturalak.

komikia

Hil da gero... Perret numero



Kokoe 036

[AKORDATZEN NAIZ]



JAVIER ARRIOLA

1940an jaioa

«Ziklistak Altzolan»

Rekuerdo txar bat ere badaukat. Basualdo izeneko ziklista bat afizionauetan ziklokroseko campeón del mundo izan zan. Haren rekuerdua daukat, gaur arratsaldian izan balitz bezela.

Bazkalostian musian egin gendun alkarrekin, eta bixaramonian hill egin zan azidentian, Deskargan. Deskarga bajatzen zoru bezela zixela, kamioia jo zaban eta hantxe geratu zan.

Beste anekdota bat: Bahamontes eta Loroño. Ikusi nittun burrukan



Bahamontes eta beste katalan bat, Vicente Iturat, oso ziklista ona zan. Hotel Altzolan burrukan, han kanpuan. Bixak ekipo baten korritzen zaben. Bixaramonian hasten zan Bizikleta Eibarresa, eta bezperan, han burrukan.

Bixaramonian ni lanera, Altzolara, eta Bahamontes zortziretako trenera, Altzolako esta-ziora, bere bizikletia eta maletak hartuta. Ordenia eman ziuen, nahi zabanak korridu Bizikleta Eibarresa, baina bixak ez.



[GURE BERBAK]

Esapide adierazgarriak (6)

Gaurkuan ere esapide gehixago ekari dittut. Elgoibarko adiñeko hiztunen jardunetik etaratakuak dira gehixenak; beste batzuk, hareri (eta gaztiagueri ere) entzundakuak, baiña nik neuk moldatutakuak.

- Txakur haundixa pagau bihar zan.
- Dantza egitteko? - Erregular!
- Ahozikin bat don hori: hitzian eta ortzian esaten jon maldiziva!
- Egun osuan geldittu be dabiz umiak, batera eta bestera, antxintxika: egun osua izerdi-patsetan.
- Ez hadi koplekin etori! Dana gaizki egin dok!
- Gaizki portau dalako-edo, makilla saldia eman dio aittak semiar.
- Aspertuta nauka Patxik, eta pikutara bialdu dot (baitta hauek ere: Atzetik hartzera, porruak landatzera, antzarrak perratzer, haizia hartzera...).
- Asko sufrittu dot Irakeko gerriakin: tripak jaten egoten nitzan Aznar eta Bush telebisuan azaltzen ziranian.
- Gaur irabazi dogun dirua hutsaren hurengua dok
- Hori da ume lotsagabia daukazuena! Sekula holakorik!
- Zur ta lur laga nau kontau didazun istorixiak
- Demasa daukazue umia, gero! Oiñ arteko (marka) danak tapauko dittu! Bejondeixola!

Jesus Mari Makazaga

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA




Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

AITOR ZABALETA KAZETARIA

«Etorkin batek etxera bidaltzen duen diruari esker 20 edo 30 lagun bizi dira Afrikan»

“Paradisuan” sartzearen milaka etorkinek jartzen dute bizia arriskuan Ceutako eta Melillako muga. European sartzeko ateak itxita aurkitzen badituzte sei metroko alanbrezko hesia edo parean jarritako oztopo guztiak gainditzen saiatuko dira. Aitor Zabaleta ETBko kazetari elgoibartarra saiakera hauen lekuko zuzena izan zen Melillan. Aitorrek oso mamitua du etorkinen arazoa, lanari esker hainbat ikuspuntutatik aztertzeo aukera izan baitu. Marokon, Senegalen eta Guinea Bissaun izana da eta baita Almeria, Fuerteventura edo El Ejidon ere. Luze eta zabal jardun dugu inmigrazioaren gainean eta hona arazo unibertsal hau pixka bat gehiago ulertzeko zenbait pista eta gogoetarako gonbita.

✎ Zein da etorkinen egoera Melillan?



Sahara azpikoek badakite lur europarra zapalduz gero, ezin dituztela bueltatu, ez baitago euren jatorrizko herrialdearekin estradizio hitzarmenik. Hau horrela izanik ere, Espainiako Gobemuak muga pasatuta zeuden batzuk Marokora itzuli zituen akordio bat argudiatuz. Ez dut zergatia ulertzen, batez ere, jakinda Marokok nola tratatzen dituen etorkinak: desertuan askatu, torturatu, hil... Melillan 600 etorkinentzako lekua dago eta 1.500 zeuden arren, penintsulan bana zitzaketen. Erabaki makurra, krudela eta bihotz gabea izan zen, iritzi publikoari begira hartutakoa. Melillara iristen diren etorkinek abegi etxean 40 egun pasa eta libre geratzen dira, kale gorrian. Atxilotu ezin dituzten arren, paperik gabe, “limbo” juridikoan daude; ez dira “legalak” ezta ilegalak ere.

✎ Melillara iristeko ere gorriak pasa dituzte...

Nigeria, Sierra Leona edo Kamerun moduko herrialdeetatik abiatu, eta batzuk, 2 urte ostean iristen dira Melillara. Bidean ahal dutenean lan eginez lortzen dute dirua. Melillako muga denbora luze egoten dira, Marokoko basoetan ezkutatuta, poliziaren beldur, salto egiteko une aproposa itxaroten. Melillan sartzea, kasik paradisuan sartzea da eurentzat.

✎ Eta European sartzea lortzen ez badute?

Helburua lortu gabe etxera bueltatzea ezin gogorragoa da. Familiako kide bat sakrifikatu egin behar da (kultura eta sasoi guztietan pasa da, baita hemen ere duela 40-50 urte) familiaren hobe beharrez. Afrikan familiak indar handia dauka. Klan edo familia zentzua oso garatuta daukate eta familia baztertzea egin dezaketek pekatu handiena da. Europa askoz indibidualistagoa da.

✎ Nolakoa da hesia?

Hesiak berez inpresioa egiten du eta hor dauden polizia eta militar guztiak gehitu behar zaizkio, eta hala ere hesia pasatzeko kapaz izatea sinestezina da. Behar eta gogo itzela behar dira saiatzeko. Hesia iragateko gorriak ikusten badituzte, paperak lortu eta legez sartzea ia ezinezkoa da. Hortaz, zer irtenbide dute? Giza Eskubideen 13. artikulua hala dio: gizaki guztiek daukate euren herrialdetik ateratzeko eskubidea,



«300 milioi afrikar egunean euro bat baino gutxiagorekin bizi dira»

emigratzeko eskubidea. Afrikak 700 milioi biztanle ditu eta 300 milioi egunean euro bat baino gutxiagorekin bizi dira!

👤 **Argi dago zergatik emigratzen duten...**

Etorkin bat obran edo errepidean lanean ikustean bere atzean familia guzti bat dagoela konturatu behar gara Europan. Etxera bidaltzen duen diruari esker 20 edo 30 pertsona bizi dira Afrikan. Gainera, garapenerako balio duen dirua da eta horri esker, ziur nago, bere anaia gazteek ez dute emigratzen. Europako Batasunak behin eta berriz esan du Europak 50 milioi etorkin beharko dituela lanerako datozen 25 urteotan. Orduan zertan gabiz? Hauek ez dira gaizkileak eta hala tratatzen dituzte. Egoera larrian bizi diren pertsonak dira. Denok daukagu bizitza aurrera ateratzeko eta lanerako eskubidea.

👤 **Hortaz, onurak ere ekarriko ditu inmigrazioak?**

Inmigrazioaren alderik txarrenak ikusten ditugu. Gezurra dirudi gu herrialde emigratzailea izan garela. Argentinan %10ak dauka abizen euskalduna. Zergatik ez hartu aukera on bat moduan? Ondarruko

armadore batek esana da, "beltz guztiogatik izango ez balitz, barkuak portuan leudeke". Gazteek ez dute arrantzan egin nahi eta etorkin senegaldarek eman diote indarra sektoreari. Gauzak ondo eginez gero, aberastuta atera gaitezke erronka honetatik. Arazoak sortuko direla? dudarik gabe, baina gauza onak ere bai. Abantaila bat daukagu, aurretik beste eredu batzuk (Frantzia, AEB...) ditugula eta badago zer ikasia. Baita estatutik etorritako etorkinekin izandako esperientziatik ere. Errealitateari ezin dizkiogu begiak itxi. Hala ez bada arazo handiak izango ditugu. Hobe da zezenari adarretatik heldu.

👤 **Zer gertatuko litzateke mugak ezabatuz gero?**

Askotan etorkinek inbaditu behar gaituztela dirudi eta munduko populazioaren %3a bakarrik da etorkina. Mugarik gabe milioika afrikar etorriko liratekeela uste dugu Europan. Batzuk etorriko ziren, baina ez guk uste bezain beste. Alarmismoak sortutako okerreko ustea da. Munduko beste leku batzutan mugak zabaldu direnean ez da horrela izan. Normalean inork ez du bere herrialdetik atera nahi.

👤 **Arazakeriaren mamuak kezkatzen al zaitu?**

Euskal Herrian oraingoz etorkin gutxi dugun arren, Europan indartzen ari den sentimendu xenofoboak kezkatzen nau. Etorkin batzuek besteek baino fama txarra goa izatea historian zehar errepikatu den fenomeno da. Estatu Batuetara milaka irlandar joan ziren eta mozkor eta borrokalaria fama oso txarra zeukaten. Orain ekonomia eta kulturaren zutabeetako bat dira. Ia ezin dira AEBak irlandarrik gabe ulertu. Espainiarrak Frantzia eta Alemaniara joan zirenean zikin eta atzeratu fama zeukaten. Hasierako estereotipoak beti egon dira.

👤 **Intenbiderik ikusten al duzu?**

Afrikako herrialdeak garatzea ez da goizetik gauera lortuko, baina pausoak eman eta neurri zehatzak eta efektiboak hartzen has gaitzek: kanpo zorra bigundu, inbertsioak eta merkatu lege justuagoa bultzatu. Konplexua da eta berba egitea erraza da, baina Europa hesitu eta blindatzea ez da soluzioa. Gaur 600 dira, bihar 1.000 eta etzi 6.000 izango dira. 50 milioi etorkin behar baditugu, beraiantzat eta guretzat ona izango da, ezta?

«Munduko populazioaren %3a bakarrik da etorkina»



[PROTAGONISTA]



JabiAgirre

Jabi Agirrek Sanlo Eskubaloi Taldeko presidente kargua utzi berri du. Lau urte egin ditu taldeko zuzendaritzan, eta horietatik bi presidente karguan aritu da. Oso gustura aritu dela esan digu, esperientzia oso positiboa izan dela, zuzendaritzan talde bikaina dagoela eta lana erraz egiten dela, hala ere, lau urteren ostean nekatu egin dela aitortu zuen: "150 jokalar, 10 talde eta entrenatzaileak koordinatzea lan handia da". Momentuz ez dakite nor izango den bere ordezkoa. Jabik herritarrei dei egiten die zuzendaritzan parte hartzeko.

[NOTIZIA]

Gaztetxeko obrak egingo dituen enpresa lehiaketa bidez hautatuko du Udalak

Elgoibarko Udalak lehiaketara atera ditu Mupem enpresa zaharreko lokalean Gaztetxe berria egiteko obrak. Proiektu honek 129.245,49 euroko aurrekontua dauka, eta obrak hasten direnetik bi hilabeteko epean bukatu beharko dira.

438m²

Gaztetxe berria Mupem enpresa zegoen eraikuntzan kokatuko da, eraikuntza industrial honen beheko solairua hartuko du. Guztira, 438m² izango ditu Gaztetxeak, eta gune desberdinetan banatuko da: kontzertuetarako lokala, egongela, taberna, sukaldea, komunak, entseguetarako gela, ekitntza desberdinetarako gela bat eta



hainbat biltegi izango ditu, besteak beste. Proiektuan aurreikusten denez, 337 lagunentzako kabida izango du Elgoibarko Gaztetxe berriak, baina kontzertuen guneari dagokionean 210 pertsona bakarrik sartu ahal izango dira.

[ZENBAKIA]

20

Inaugurazio ofiziala 1986ko San Anton Egunean egin zuten arren, 1985. urteko azaroan ireki zituen ateak San Lazaro egoitzak, beraz, hilabete honetan 20 urte beteko ditu. Udalak 95.430 euro erabiliko ditu San Lazaro Egoitzako fatxada garbitu eta indartzeko.

asteko [ARGAZKIA]



Santu Guztien Eguna izan zen joan zen asteartean, azaroaren leian. Jai eguna eta aurten gainera lau eguneko jai zubia izan dugu. Jende askok otoitz egitea albo batera utzirik bidaitxoren bat egiteko aprobetxatu ditu egun hauek, baina oraindik ere, asko dira egun hauetan hilerria joaten direnak. Lorak erosi eta hildako senideei otoitz egitera joateko ohitura bizirik dago elgoibartarren artean. Sekulako haizea egin duen arren, herritar ugari aurkitu ditugu kanposantuko isiltasunean.

Segurtasun hesiak jarriko ditu Foru Aldundiak Azkarateko errepidean



Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgoibar eta Azkoitia lotzen dituen Azkarateko errepidean segurta-sun hesiak jartzeko erabakia hartu du, batetik, toki batzuetan ez dagoelako segurtasun hesirik, eta bestetik, lehendik dauden hesien euste maila egokitu egin behar delako. Foru Aldundiak lehiaketa bidez hautatuko du obra hau burutuko duen enpresa.

741.000 euro

Obra honek 741.365,48 euroko aurrekontua dauka, eta enpresa hautatuak sei hilabeteko epea izango du

lanak amaitzeko. Guztira 15 kilometroko luzeran jarriko dira hesiak, (15.456 metro linealetan).

Obra honen helburua Elgoibar eta Azkoiti bitartean ibiltzen diren gidarien segurtasuna areagotzea da. Asko dira egunero bide hau erabiltzen dutenak, Azkarateko errepide zaharra inguru hartan bizi direnek soilik erabiltzen dute. Abantaila handia izan da errepide berria, baina zenbait tokitan %8ko malda dauka eta abiadura handia hartzen da. Bide hau ireki zenetik istripu ugari izan dira bertan, eta horiek gutxitzea izango da segurtasun hesien helburua.

Merkadilloko saltzaileek Udaltzaingoa salatu dute

Eliza azpian beren postua jartzen zuten merkadilloko saltzaileek Elgoibarko Udaltzaingoa salatu dute, "produktuen lapurreta" eta "legez kanpo lekua uztera behartzea" leporatuz. Joan zen urriaren 20an elizako arkupeetatik indarrez bota zituztela adierazi dute saltzaileek, beraien handik bidaltzeko baimenik edo agiririk erakutsi gabe bidali zituztela. Bestalde, bigarren salaketa batean, urriaren 27an elizako arkupeetan salgai jarri zituzten hainbat produktu lapurtzeaz salatzen dituzte herriko udal-tzainak. Raul Arg aiz, saltzaileen ordezkariak beraien postuak

eliza azpian jar-tzen jarraituko dutela azaldu zuen, baina atzo goizean, Plaza Handia udaltzainez beteta esnatu zen berriro ere, eta ez zieten utzi postuak jartzen.

Ostegunetako azokaren arazoa 2004. urteko udan hasi zen, eta oraindik ez dute Udalak eta saltzaileek akordioarik lortu. Orain saltzaileak ere banatuta daude, eta zenbait saltzailek Plaza Txikian jartzen dute postua Udalaren baimenaz. Gainontzekoek borrokan diraute oraindik, eta Sigmara joatearen kontrako ekintzak egiten jarraitzen dute.

[MOTZ-MOTZIAN]

Nagusiak zaintzen ikasteko ikastaroa

Lahar Elkargoak antolatuta, nagusiak zaintzen ikasteko ikastaroa hasiko da datorren azaroaren 7an. Nagusiak zaintzeko interesa duten bolondresei zuzendutako ikastaroa da. Kultur Etxean eskainiko da eta astebeteko iraupena izango du, beraz, azaroaren 14an bukatuko da. Interesatuak ondorengo telefonoetan jaso dezakete informazio gehiago: 943 47 41 82 (Marian Goenaga) edo 665 71 86 95 (Pedro Bilbatua).

Kinto bazkariak

1942ko kintoek azaroaren 12an egingo dute bazkaria Sigma jatetxean. Interesatuak 40 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako kontu honetan. 0071035389.

1975. urtean jaiotakoek berriaz, abenduaren 17an egingo dute kinto bazkaria. Interesatuak Euskadiko kutxako kontu zenbaki honetan 20 euro sartu beharko dituzte. 3035 0007 21 0071035769

Osasun Zentroa

Osakidetzak jakinarazi duenez, Medikuntza Orokorrerako, Pediatriarako, Erizaintzaitzarako, errezetak eskatzeko edo beste edozein informazio eskatzeko goizeko 8:00etatik iluntzeko 20:00etara bitartean deitu daiteke Elgoibarko Osasun Zentrora. Hala ere, larrialdietarako ez bada behintzat, 13:00etatik aurrera deitzea gomendatzen dute.

Gabon Zahar Feria

Elgoibarko Kultura Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurtengo Gabon Zahar Feria abenduaren 31n izango da. Bertan produktuak saltzeko postua jarri nahi dutenek abenduaren 22a baino lehen eman beharko dute izena Udaleko Kultura Zerbitzuan. (Telefonoa: 943 74 21 58, fax-a: 943 74 41 61)

Inkesta

30.000 etorkin daude Ceuta eta Melillako mugan Europara sartzeko zain.

Europa prest ikusten al duzu hainbeste etorkin hartzeko?

JOSE ANJEL MARKINA
Manteinu teknikaria
47 urte



“Ez. Nire ustez beraien garrantzerako baliabideak eman ez euren lurraldean garrantzen lagundu beharko genieke, gu beraien hartzeko prestatu beharrean.”

ENEKO BIKONDOA
Instaladorea
26 urte



“Ez, ezta pentsatu ere! Ekonomikoki, kulturalki eta ezta sozialki ere Europak ezin ditu hainbeste etorkin hartu. Hemen ez dago guztiontzako lanik.”

JOSE RAMON YAGUE
Mekanikoa
50 urte



“Ez. Gu geu ere ekonomikoki nahiko gaizki gabiltza, ekialdeko estatuek min handia egin digute eta lan mundua larri dabil. Europa ez da euren uste duten paradisu.”

IKERNE IGARZA
Ileapaintzailea
20 urte



“Baietz uste dut. Hemengo lan egoera ez dago oso ondo, eta zaila izango da, baina Europak ez luke arazorik izan behar kultura desberdinetako jendea hartzeko.”

[BAI ala EZ?]

Igarri al duzu Elgoibarren etorkinen ugaltzea?

BAI %85

“Bai. Egia esan, gero eta kolore gehiagoko jendea ikusten da eta hori aberatsa dela uste dut. Ea guzti horiek euskal mundura hurbiltzen asmatzen dugun.”

EZ %15

“Ez. Garai batean estatu mailatik ere etorkin ugari etorri ziren Euskal Herrira, eta ez dut uste etorkinen etorrera orain handiagoa denik.”

Datorren asterako....

Clemente izango da Athletic-eko entrenatzaile berria.

Lortuko al du Clementek Athletic zulotik ateratzea?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

Ikastolako ikasleak Zernola Zientzi Olinpiadetan parte hartzen ari dira

Elgoibar Ikastolako DBH 2. mailako ikasleak Elhuyar Fundazioak antolatutako Zernola zientzi olinpiadetan parte hartzen ari dira. Lehiaketa honen helburua gaztetxoei zientzia dibertigarria dela erakustea da. Ikasleek zientzietako ikerketaz aparte informatikako tresnak, besteak beste, internet, korreoa, eta klaseetan ikasitako

programak (flash, power point, word...) praktikan jartzeko aukera dute. Gelaka hartzen dute parte eta lana taldeka nahiz banaka egin dezakete. Olinpiada hau urritik ekainera bitartean jokatuko da. Hilabetero proba desberdin batean parte hartzen dute eta olinpiada amaieran lehenengo hiru sailkatuentzat izango dira sariak.



Elgoibarko Ikastolako DBH 2A gelakoak.

Elgoibarko Ikastolako DBH 2B gelakoak.



[IKAS KONTUAK]

"Behin batean... Gabonak" lehiaketa antolatu du Atxutxiamaiak

Lehen Hezkuntzako ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna sortzeko asmoz, Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak "Behin batean... Gabonak" izeneko idaz-lehiaketa antolatu du Udalaren laguntzaz.

LH 1. eta 2. mailakoek Gabonetako marrazkia egin beharko dute,

LH 3. eta 4. mailakoek Olentzerori gutuna idatzi beharko diote eta azkenik

LH 5. eta 6. mailakoek ipuin bat idatzi beharko dute "handitzen, handitzen... hasi naiz handitzen" gaiarekin.

Lanak azaroaren 30erako entregatu beharko dira Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Ubitarten daukan egoitzan. Sariak Olentzerok banatuko ditu abenduaren 24an.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 16 26 (Aiora) telefonora deitu daiteke.

[IRTEERAK]



Ikastolako ikasleak Arantzazu-Otzaurte trabesian

Ikastolako ikasleek Arantzazu-Otzaurte mendi trabesia egin zuten. Lehen gaua Urbian pasatu zuten kanping dendetan. Hurrengo egunean Aizkorrira igo eta, San Adrianeko aterpetxera joan ziren. Hirugarren egunean etxera itzuli ziren.



Pilar Ikastetxeako Arraten izan ziren

Pilar Ikastetxeko DBH 1, 2, 3, 4 eta LH 5 eta 6. mailakoak, Arratera txangoa egin zuten. Elizkizun batez hasi zuten eguna eta iluntzean itzuli ziren etxera. Eguraldi ona egin zien eta esan zuteneguz, egun oso polita igaro zuten.

GAZTIA NAIZ

elkarriketa...

Irune Zubiaurre

18 URTE ZITUENETIK DONOSTIAN BIZI DEN ELGOIBARTAR HONEK OLABARRIAN LAN EGITEN DU. 24 URTE BESTERIK EZ DITUEN ARREN, VILARIÑO MOTOR SPORT KARTING ZIRKUITOKO ZUZENDARIA DA IRUNE ZUBIAURRE. GASOLINA, GURPIL ERRE USAIN ETA MOTOR ZARATARA OHITUTA DAGOELA AITORTZEN DU. FERNANDO ALONSOREN INDAR MEDIATIKOAK MODAN JARRI DU I FORMULA ETA AUTOEN MUNDUA EGUNERO BERE LANEAN IKUSTEN DUENAREN ARABERA EUSKALDUNOK ERE EZ OMEN GARA ATZEAN GERATZEN.



“Pilotuen harrobi bat sortzeko denbora eta inbertsio handia behar dira”

Nola iritsi zara Olabariako zirkuitoko zuzendaria izatera?

Enpresaritzaz ikasketak amaitu ostean, kontabilitate eta protokolo masterrak egin nituen. Lekunberriko enpresa batean praktikak egiten ari nintzela Andres Vilariño ezagutzeko zortea izan nuen. Ikasketez gain, ingelesez, alemanieraz, gazteleraz eta euskaraz ondo moldatzen nintzela kontutan izan zituen eta Olabariako zirkuitua zuzentzeko pertsona egokia izan nintekeela iruditu zitzaion. Urte eta erdi daramat hemen lanean. Zirkuitua bera 97tik dago martxan.

Zein dira zuzendari gisa dituzun ardurak?

Dena martxa onean eta zuzen dagoela egiaztatzea eta gainbegiratzea. Mota guztietako enpresetako jendea etortzen da zirkuitura eta bisita hauen antolaketaz arduratzen naiz, ezer faltan bota ez dezaten dena kontrolpean izateaz,

alegia. Esaterako, Euskal Herriko Volkswagen etxeko kontzesionario guztiak elkarrekin antolatuta Golf GTI berria probatzera etorri ziren behin. Vip bezeroekin eta auto bera askotan erosi duten bezeroekin etorri ziren eta hiru egunetan zazpi auto probatzen aritu ziren. Euskadiko Karting Txapelketako probak ere egiten dira gure zirkuituan eta horien antolaketan eta komunikazio lanetan ere jarduten dut. 2004. urtean, kart lasterketa guztien %80a Olabariako zirkuituan egin zen. Lehiakide batzuk gure zirkuituan bertan gordetzen dituzte konpetizioko kart-ak eta nahi dutenean etortzen dira entrenatzera.

Auto edo motorzalea izan behar al da zure lanean aritzeko?

Zerikusirik baduela uste dut. Piska bat ulertzea eta kart-ak ikusiz disfrutatzea lagungarria da. Horrela, mimo eta gustu gehiagorekin antolatzen dira gauzak. Gustuko lanean errendimentua ere

BARREN

hobea da. Gogoko nuen motor mundua hemen hasi aurretik eta barrutik bizi dudanetik afizioa areagotu zait. Horretaz aparte lan berezia da, ez bainago bulegoko lau pareten artean sartuta. Asko mugitzen naiz batetik bestera eta komertzial lanarekin antz gehiago du.

Zein dira zirkuituaren ezaugarriak?

Ander Vilariñok diseinatutako zirkuitua da. 65.000 m²ko lur eremuan eraikia dago, 1.100 metroko luzera du eta zortzi metroko zabalera.

“Euskadiko Karting Txapelketako lasterketen %80a Olabarrian egin ziren iaz”

Zein dira eskaintzen dituzuen zerbitzuak?

Guztira 21 kart dauzkagu jendeak alokatzeko. Txikiak 200 c.c.-koak eta 390 c.c.-ko handiagoak. Azken hauek 80-85 kilometro orduko abiadura har dezakete. Normalean 10 minutuko saio edo txandak izaten dira. Bestalde, lagun koadrilak eta ezkondu aurreko agurrak ospatzera etortzen dira asko. Gero eta neska gehiago, gainera. 1 formulako sari baten simulazioa egiten dugu. Bost minutuko entrenoak izaten dituzte lehenbizi eta 15 minutuko lasterketetan parte hartzen dute gero. Egindako denborak ordenagailu pantailetan ikus ditzakete eta demaseko 'pikpeak' sortzen dira.

Kartak alokatzeko aukeraz gain, Gida Eskola deiturikoa daukagu. Gidatzeko teknikak hobetu eta perfektionatzeko eskola. Gehienbat enpresei zuzenduriko saioak dira. Bi ikastaro mota daude: segurtasuna oinarri duena eta kirol gidaritzaz aurreratua eskaintzen duena. Andres eta Ander Vilariño aita-emeek zuzentzen dute eskola eta monitoreak palmares handia duten pilotu eta pilotu ohiak dira.

Umeekin ere egiten duzue lan, ezta?

Bai. Diputazioarekin akordio bat daukagu ikasleei gida klase teoriko eta praktikoa eskaintzeko.

Olabarria pilotuen harrobia al da?

Pilotuak sortzeko harrobi batek diru eta inbertsio handia eskatzen du. Dena dela, pilotu asko atera dira hemendik. Euskadiko Karting Txapelketan 68 pilotu ari dira sei mailatan banatuta. Guzti horiek eta gehiago hemendik atera dira. Aurten Europako Mendi Txapelketa irabazi duen Ander Vilariño esaterako, hemen hasi zen pilotu egiten. Gorka Apalantza errezildarra ere hemen hasi zen gidatzen eta Espainiako Mendi Igoeren Txapelketa irabazi berri du. Zirkuitua hasi da bere fruituak ematen, baina denbora eta batez ere babesleenganduz laguntza behar dira.

Ez da ahaztu behar Fernando Alonso eta 1 formulako beste pilotu asko kartetan hasi zirela.

“Kart handienek 80-85 kilometro orduko abiadura har dezakete”

Euskaldunok abiadura eta motorzale fama daukagu. Kosta egiten al da grina hori eusten?

Ezkon aurreko agurra ospatzera datorren jende asko badator ere, sekula ez dugu arazorik izan. Normalean hemendik ateratakoan hazten dira gauzak okertzen. Nabarmendu nahi duen bateronbat egon arren, jendea ondo portatzen da normalean, errespetuz. Gainera, Inñaki daukagu pistako arduradun eta harekin ez dago bromarik! (barrez). Hori bai, jendeak ez ditu kartak bereak bailiran tratatzen, dena esan behar bada. Karten aurrekontu handiena mantentzen duen josten da.



Informazioaren teknologiak enpresa munduan

Miramón Enpresa Digitalaren eskutik sei mintegi eskainiko dira IMH-n ikasturte honetan. Enpresa txiki eta ertainetan (mikro enpresa eta autonomoei ere bai) informazioaren teknologiak modu eraginkorrean ezartzea izango da mintegien helburu nagusia. Besteak beste, interneten informazioa bilatzen, enpresaren web orrialdeak eduki beharko lituzkeen edukiak edo nola banatu denbora eta errekurtsuak izango dira aztertuko diren gaietako batzuk.

Doaneko mintegi hauetan parte hartu nahi izanez gero, edo informazio gehiago nahi izanez gero, www.miramondigital.com web orrialdea bisitatu edo 943 74 73 14 telefonora deitu.

Doako ikastaroak KZgunean

Elgoibarko KZguneak azaroko ikastaro eskaintzaren berri eman nahi du. Hauek dira aukerak: interneten hasteko ikastaroa (20 ordukoa), Nagusiweb edo 50 urtetik gorakoentzako oinarritzko internet ikastaroa eta nabigatzen ikasteko ikastaroak 16 urtetik gorakoentzat.

Ikastaroez gain mintegiak ere egongo dira: Foroak eta FAQ, Via Michelinekin bidaiatu, Fagor gida gastronomikoa edo argazki digitalen tratamendua.

Ikastaro guztiak doakoak dira. Informazio gehiago KZgunean bertan.

Oleoa margotzeko ikastaroa

Egur Arte Tailerrak oleoa margotzeko 30 orduko ikastaroa emango du azaroaren 7tik 30era bitartean. Astelehenean ostegunera izango dira klaseak 18:00etatik 20:00etara.

Izena emateko Aita Agirre Plazan duen egoitzara jo beharko da klase orduetan.

KONTZERTUA


Folk doinuak ekarriko ditu "Kukuma" taldeak Bilbao aldetik



Euskal zein urrutiko etniak eta soinuak baturik, sentipen unibertsalaren kutsua darian musika herrikoa sortzen du "Kukuma"k. Argitaratu duten lehen diskoan festarako proposamenak aurki daitezke, erritmo beroak, soinu zeltak eta gure tradizioko musika tresna etnikoak uztartu baitituzte. Herri eta giro ezberdinetatik etorri arren, Bolueta auzoan entsaiatzen dutenez, "Kukuma", Bilbaoko taldea dela esan daiteke. Taldekideen lehenagoko musika esperientzia ezberdinak elkartu eta haien

nahasketaz baliatzen jakitea da beraien talenturik nagusiena. Taldekideen iritziz, "horren emaitza, zeruko ortzadarreren modura, fantasia koloretsuetan hausten baita". Angolako Lingala hizkuntzan Kukuma iritsi bezala itzuli liteke. Izen egokia benetan honako taldearentzat, bere musika bete-betean, zuzen bezain natural iristen zaigu-eta. Kukuma-k argitaratu duen izen bereko estraineko disko folk doinuak ekarriko ditu gaur, hilak 4, Herriko Antzokira (22:15).


"Gomendatzen dizut" lehiaketako irabazleak



Axier Orbea eta Laura Vegas izan dira Elgoibarko Gazte Bulegoak eta Nekatur Elkartek antolatutako "Gomendatzen dizut" sariaren irabazleak. Axierrek Italiako "Cinque Terre" lurraldeari buruzko gomendioa bidali zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoko baserri batean asteburu bat irabazi du. 17 urtez beherakoetan, Salamancako probintzia gomendatu zuen Laura Vegasek eta MP3 aparailu bat irabazi du. Oporretan joan eta han batutako gomendiorik onenak gainontzeko herrietan eskura jartzeko asmotan sortu zen lehiaketa. Elgoibarko eta inguruko herrietako gomendio irabazleak www.aizu.com helbidean aurki daitezke.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Alberto Iñurrategiren "Gure Himalaya" azaroaren 11n



Alberto Iñurrategi mendi goizale atxabaltarrak "Hire Himalaya" ikus-entzunezko arrakastatsu eta saritua- ren jarraipena den "Gure Himalaya", eskainiko du datorren barixakuan, hilaren 11n, Musika Eskolako auditorioan (22:00). Aurrekoa, Gasherbrum II.ko tontorretik jaisten hildako Felix anaia eskaintako omenaldi gisa egin zuen eta oraingoan grabazio zaharretatik berreskuratutako Felixen ahotsa da protagonista. Iñurrategi anaiek 1991 eta 1998. urte bitartean buruturiko alpinista jardueraren interpretazio kritikoa egiten du "Gure Himalaya" k, mendia eta mendizalearen arteko erlazio-aren inguruko barne-behaketa sakona eginez. Himalayismoak bere inguruan mugitzen duen guztiaren gogoeta kritiko, sakona eta egiazkoa egiten du: mendizale eta porteatzaileen arteko erlazioa, komunikabideek eta hauen ondorioz gizarteak mendizaleei buruz duen irudiak alpinista berarengan duen eragina, tontorrari ematen zaion garrantzia, e.a. ikutzen ditu.

Termak erabiltzeko beharpenak Kirol Patronatuko abonatuentzat

Gipuzkoako Terma edo bainuetxetara doazenean beharpenetaz gozatzeko aukera izango dute Udal Kirol Patronatuko abonatuak hemendik aurrera. Euskadiko Udal Kirol Teknikarien Elkartearen gestioari esker lortu dira beharpenak. Orain artean, Zumaiako (Hotel Zelai), Donostiako (La Perla) eta Zestoako bainuetxetan zeukaten beharpenetaz aprobetxatzeko aukera: ur zirkuitoetan %15eko beharpena eta tratamenduetan %10ekoa. Aurrerantzean, Debako (Kresala) eta Lekeitioko (Aisia) Hotelek eskaintzen dituzten zerbitzuetan ere abantailak izango dituzte: ur zirkuitoetan %20ko beharpena, tratamenduetan %10ekoa, eta abonu eta



bazkide txarteletan %5eko beharpena. Noski, beharpen eta abantaila hauetaz gozatu ahal izateko kirol txartela aurkeztu beharko dute.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Sestao 2 - Haundi 0 - (3. maila)
Lagun Onak 3 - Elgoibar 0 (Erreg.)
Elgoibar 1 - Añorga 1 (Jub.)
Elgoibar 10 - Idiazabal 0 (Kad.)
Real Sociedad 7 - Elgoibar 1 (Inf. A)
Tolosa 9 - Elgoibar 2 (Inf. B)
Elgoibar 2 - Urki 1 (Neskak)
Urki 6 - Elgoibar 2 (Neskak f-8)
Elgoibar 7 - Aloña Mendi 1 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 8 - Inter. Intxaurren 1 (Nazional B)
Oriko Tabernak 3 - Lanbroa 3 (1. maila)
Toletxe Kafetegia 2 - Eskoriatza 6 (Jub.)

ESKUBALDIA

Galdakao 21 - Basauri 23 (Sen. mut.)
ANIT-Softlan 18 - Lojantzi 21 (Sen. nesk.)
Aloña Mendi 19 - Umobitza 22 (Kad. mut.)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak (Liza./Ariza) 22 - Lizardi 13 (2. jub.)
Lagunak (Agirreb./Loiola) 22 - Beloki 16 (2. nag)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 5
12:30 Elgoibar - Mondragon (Neskak)
16:30 Haundi - San Pedro (3. maila.)
18:30 Elgoibar - Bergara (1. erreg.)
Domekia, 6
10:30 Elgoibar - Lagun-Onak (Inf. B.)
12:00 Elgoibar - Ordizia (Inf. A.)

ESKU PILOTA Ikastolan

Barixakua, 4
22:00 Lagunak - Añorga (1. maila Jub.)

ESKUBALDIA Kirolegian

Zapatua, 5
16:00 Pneumax - Tolosa (Jub. mut.)
17:30 Lojantzi - La Salle (Sen. nesk.)
19:00 Umobitza - Arrate (Kad. mut.)
Domekia, 6
9:30 Tecnomeca - Zarautz (Kad. mut.)
11:00 Sanlo A - Zarautz Aiala A (Inf. nesk.)

ARETO FUTBOLA Kirolegian

Zapatua, 5
12:30 Lanbroa - Laskorain (1. maila)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFEAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaririk erregularrena **05/06**

Jokalaria	Puntuak
1. David Morais	27
2. Arruti	19
3. Iribar	16
4. Guinea	14
5. Alex Del Rio	12

Merkatua

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **639 882 004**
- † Neska garbiketa lanak egin, umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest. ☎ **943 17 28 96**
- † 2. mailako enkofratzailea eta 1. mailako igeltseroa den mutila lanerako prest. ☎ **943 17 28 96 (Iosu)**
- † Mutila arratsaldez lan egiteko prest. ☎ **636 923 990**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943743103/662016630**
- † Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
- † Txistularia eta dantzaria den pertsona ospakizunetarako prest. ☎ **615 799 689 (Naroa)**
- † Lorategi eta haztegi langileak bere burua eskaintzen du terenoak garbitu, podaketa lanak edo baserrian lan egiteko. ☎ **662 365 469 (Ibai)**
- † Emakume arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Esperientzia. ☎ **610 755 399**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **646 238 195**

- † Mutil gaztea eskaintzen da lan egiteko. Igeltsero laguntzaile, gidari, kamarero... ☎ **646 238 195**
- † Neska goizetan lan egiteko prest. Ostalaritzan esperientzia. Garbiketa lanetarako eta tailerretarako prest. ☎ **647 144 950**

ESKAINZA

- † Asteburuetan lan egiteko kamarero eta sukaldaria behar dira. ☎ **615 72 34 80**
- † Kamareroa behar da. Esperientziarekin. ☎ **943 74 34 11**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Arregitorren etxebizitza berria salgai. 3 logela. 2 komun, sukaldia eta egongela. ☎ **686 68 29 79**
- † Pisua salgai Mendaron. ☎ **669 53 17 47**
- † Pisua salgai Bernardo Ezenarro kalean. 3 logela, komuna, sukaldia, egongela, trasteroa. ☎ **677 43 71 12**
- † Pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ **610 45 85 52**
- † Pisua salgai Bernardo Ezenarro kalean. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna, igogailua, berogailua. ☎ **677 20 25 55**
- † Etxea salgai Sorraluzen. ☎ **943 85 29 99**
- † Etxea salgai Sigman. ☎ **943 74 42 34**
- † Etxea salgai Iniguez de Karkizano (Artex) kalean. Berritua eta dena kanpora begira. Altzariekin. Ganbara. ☎ **627 94 12 61**

ALOKAIRUA

- † Etxea alokatzen da Azkoitin. ☎ **647 653 685**

- † Etxe berria alokatzen da. ☎ **943 74 27 47 (20:00-21:00 astegunetan)**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **646 23 81 95**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **626 91 49 04 (Rosa)**

[SALEROSKETAK]

- † Cannondale F-900 mendiko bizikleta salgai. FATY horkila blokeatzailea, diskozko frenoak, Shimano XT grupoa. ☎ **620 27 61 28**
- † Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. ☎ **605 72 48 24**
- † Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Pedigree bikaineko aitaren kumeak. Merke. ☎ **615 76 30 62**
- † Kawasaki motorra salgai. ZZR600. RAN-AIR, 112 zaldi. 1994. urtekoa. Oso egoera onean. ☎ **610 89 33 32 (arratsaldez)**
- † Pentium IV ordenagailua salgai. Windows XP osagarri guztiekin. ☎ **943 74 43 38**
- † Renault Clio autoa salgai. 1994. urtekoa. Bi ate, txuria. Prezioa adosteko. ☎ **943 74 43 38**
- † Pisatzeko kalkulagailua salgai. Bi saltailerentzat, txanpon kaxarekin. Prezio onean. ☎ **943 74 84 69**
- † Play Station 2 salgai. Jokuekin. ☎ **685 75 93 15**
- † Peugeot motorra salgai. 49cc. 500 euro. ☎ **943 74 25 75 (Xabi)**
- † Ford Focus autoa salgai. 30.000Km. Egoera onean. ☎ **645 72 06 01**
- † Etxe berriko sukaldia salgai. Oso merke. Amairuak, fregadera, labea, bitrozkeramika, kanpaia. Eramateko prest, enbalatuta. ☎ **943 74 84 69**

[GARAJEAK]

- † 28m² ko garaje itxia salgai Madalan. ☎ **646 50 28 66**
- † Bi garaje alokatzen dira Jausoro Plazan. Itxiak, estreinatzeke. ☎ **653 702 750 (Nerea)**
- † Garajea salgai Santa Ana kalean. ☎ **615 70 98 08**
- † Marradun garajea alokatzen da Pista Beltzean. ☎ **943 74 33 52**
- † Arregitorre 12an garaje marraduna salgai. ☎ **943 74 09 57 (gauz)**

[LOKALAK]

- † Lokal txikia alokatuko nieke 18 urtetik gorako neskei. ☎ **667 838 858**
- † Lokala salgai Mendaron. 150 m² Negozioa martxan, diru sarrera demostragarriak. ☎ **943 75 50 20/ 675 708 133**

[BESTERIK]

- † Game Boy-rako joku bat topatu nuen Plaza Handi inguruan. ☎ **943 74 32 70**
- † Gazte batek lokalera sofa bat hartuko luke. ☎ **680 55 99 93**
- † Urriaren 19an txakur-pelutxea galdtu nuen Leku Ederren. ☎ **686480388**
- † Zilarrezko eskumuturrekoa galdtu nuen. David izena eta jaitze data dauzka. ☎ **943 74 37 07**
- † Urrezko pulsera bat aurkitu dut Leku Eder parkean. ☎ **943 74 28 04**
- † Uztailan urrezko pulsera bat aurkitu nuen Arregitorre inguruan. ☎ **943 74 33 03**
- † Ingelesezt hitz egitea gustuko duen pertsona helduren batekin kontaktuan jartzea nahiko nuke. 37 urte ditut, ingeles maila ertaina. ☎ **617 17 53 18**

maitane

ESTETIKA ZENTROA



- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Nutrizionista zerbitzua
- Solairuma
- Masajeak
- Dekolorazioa

- Depilazioa
- Laser depilazioa
- Makillajea
- Mikropigmentazioa
- Betileen eta bekainen tindatzea eta permanentea



Hondartza, 7 behea • DEBA

Tel.: 699 347 040 / 943 19 12 11



Bulkatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



MEKANOSA

Errosario, 30

Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

[ZORIONAK]



† Zorionak **Ane** atzo 6 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki, ahizpa Mariaren partez.



† Zorionak **Ibai** zure lehenengo urtebetetzean. Aita, ama eta familiako guztien partez.



† Zorionak **Javier** atzo 7 urte bete zenituelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



† Zorionak **Unai** hilaren Sean 5 urte egingo dituzuelako. Ondo pasa familiaren partez.



† Zorionak **bikote** hilaren 7an urteak beteko dituzuelako. Etxeko guztien partez.



† Zorionak **Sandra, Nora eta Amaial** Zenbat urte? 13, ezta? Hala ere, klaseko txkienetakoak zarete oraindik, je, je... Ondo pasa zuen egunean. Koadrilakoen partez.



† Zorionak **Unai** zure lehenengo urtebetetzean. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Anel** azaroaren 8an urte bat beteko duzuelako. Aritz eta Maialenen partez.



† Azkenean iritsi da azaroa! Zorionak **Sarai eta aitxi-txa**. Ondo pasa zuen egunetan.



gazte
informazioa

EKINTZAK

HITZALDIA: "FISIKA, BIZITZA ETA PENTSA-MENDUA"

Fisics Communs-en eskutik fisikari, molekularioari, denbora aktiboari, denborako bidaiei, nanoteknologiari, birusak sendatzeko proiektuari eta gertakari paranormalei buruzko hitzaldia emango da debalde. Ordua: 19:00etan. Tokia: Craj! Gaztegune, Anoeta, 28 Donostia. 11. aretoa. Informazioa: 619 552893 (Luis Miguel).

EKINTZAK

MULTIMEDIAKO TEKNIKARI IKASTAROA LANGABEENTZAT

Cebanc eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta. Luzera: 210 ordu, azaroaren 7tik otsailaren 3ra. Tokia: Cebanc-Cdean izango da, 14:30etatik 18:30etara. Epea: plazak bete arte. Informazioa: 943 316900

LANA

ERAGIKETA LAGUNTZAILE BAT KURSAAL ZENTROA-KURSAAL ELKARGUNEA, SA-RAKO

Baldintzak: Gutxienez goi-mailako zikloko prestakuntza edo antzekoa izatea eta kultura-ekintzak eta antzekoak antolatzen esperientzia izatea; ikus-entzunezko baliabideak ezagutzea eta Office, Internet edo posta elektronikoa bezalako informatika-erremintak ezagutzea komeni da. Ezinbestekoa da euskara eta ingelesa jakitea. Interesatuak curriculum vitae bidali behar dute Ordiziako 89, 20240 posta-kutxara, kartazalean lanpostuaren erreferentzia adierazita (Erref. 54/05). Epea: azaroak 4. Informazioa: 943 003000

ETXEZ ETXeko LAGUNTZAILEEN LAN POLTSA USURBILGO UDALERAKO

Usurbilgo Udalean sortzen diren aldi baterako hutsuneak betetzeko, Etxez Etxeko Laguntzaileen lan-poltsa osatzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Eskolatzegiurtagiria, 2. hizkuntza-eskakizuna eta B motako gidabaimena. Epea: azaroak 7. Informazioa: 943 371951

GARBITZAILE LANPOSTU BAT BERGARAKO MIZPIRUALDE ZAHARREN EGOITZAN

Bergarako Mizpirualde Zaharren Egoitza Fundazio Publikoan aldi batez garbitzaile-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Probak gauditzen dituztenek lan-poltsa bat osatuko dute egoitza bereko garbitzergiko garbitzaile-lanpostu baterako. Baldintzak: Eskolatzegiurtagiria eta 1. hizkuntza-eskakizuna, ez derrigorrezkoa. Epea: azaroak 7.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es

☎ 943 741 461



Astelehen-astearte/ostegun-ostiral
16:00-19:00

Zerbitzuak

[OKINDEGIA]



[FARMAZIAK]

4
5
6
7
8
9
10
11

GUARDIA 24 ORDUZ
Zabaleta
Etxeberria (*Errosario*)
Etxeberria (*Errosario*)
Ibañez
Bidasolo
Etxeberria (*Santa Ana*)
Fernandez
Yudego

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

Doan BERRIArekin

PURRITXO ETXERROTXO
familien
karta-jokoa



**Azaroaren 5etik
aurrera**



Euskoalduerik behar duzun **berria**

[4 BARIKAKUA]

22:15 FOLK KONTZERTUA

Taldea: "Kukuma"
Herriko Antzokian

[7 ASTELEHENA]

17:00 HIRUGARREN ADINEKOEI LAGUNTZEKO BOLUNTARIOAK PRESTATZEKO IKASTAROA

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Azaroaren 14ra arte
Dohainik
Informazio gehiago: Lahar
943 47 41 82

18:00 OLEO MARGOEN IKASTAROA

Iraupena: 30 ordu, astelehenetik
ostegunera
Izen ematea: Aita Agirre plaza,
erdiko atea, 2. pisua (18:00etatik
20:00etara)
Antolatzailea: Egur arte tailerra

[8 MARTITZENA]

17:00 ANTZERKIA

Antzezlan: "Antonio Apreta"
Taldea: Goringo
Udal Liburutegian
Antolatzailea: Kutxa

[11 BARIKAKUA]

22:00 "GURE HIMALAYA" IKUS- EMTZUNEZKOA

Egilea eta hizlaria: Alberto
Iñurrategi
Musika Eskolako auditorioan
Antolatzailea: Kutxa, M.E.ren
laguntzarekin

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El secreto de los hermanos Grimm»

5, zapatua: 19:30-22:15

6, domekia: 19:30-22:15

7, astelehena: 22:15

"Heroe a rayas"

6, domekia: 16:30

«Ebrio de mujeres y pintura» (Z.K.)

10, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Una vida por delante»

4, barixakua: 19:30-22:15

5, zapatua: 17:00-19:30-22:15

6, domekia: 17:00-19:30-22:15

7, astelehena: 19:30-22:15

8, martitzena: 19:30-22:15

9, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Y que le gusten los perros»

4, barixakua: 19:30-22:15

5, zapatua: 17:00-19:30-22:15

6, domekia: 17:00-19:30-22:15

7, astelehena: 19:30-22:15

8, martitzena: 19:30-22:15

9, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«El secreto de los hermanos Grimm»



Zuzendaria: Terry Gilliam.

Antzezleak: Matt Damon, Heath Ledger.

Will eta Jake Grimm ipuin idazle ezagunen abenturak dakartza Terry Gilliam "Monty Phytton" talde mitikoko kide ohiak. Filmak ez du "Hansel eta Gretel", "Txanogorritxu" edo "Edurnezuri" ipuinen sortzaileen bizitza kontatzen, beraiek protagonista diren ipuin berri bat sortu baizik. Heriz herri munstroak eta deabruak akabatuz bizi dira anaiak, baina agintariak euren iruzurra azaleratzean sorgindutako baso batean ezkutatu dira.

«Ebrio de mujeres y pintura» (Z.K.)

Zuzendaria: Im Kwon-taek.

Antzezleak: Choi Min-sik, Yoo Ho-jung,

Jang Seung-up XIX. mendeko margolari koreararen istorioa. Artista honen lan eta izakera iraultzaileak betirako aldatu zuen korear artea. Izan ere, korear arte tradizionalaren mugak gainditu eta mundu mailako erreferentzia bihurtu ziren bere lanak. Margolariaren haurtzaroa kontatuz hasten da pelikula. Kim Byung-moon-ek jipoitua izatetik salbatuko du Jang gaztea eta honek koadro bat margotuko dio. Mutikoak daukan izugarizko talentuz jabetuko da.

Atzera begira



1940 urte inguruko erretratu zahar hau **herritar batek** laga digu. Bere etxeko portalean aurkitu zuen argazkia, eta **BARRE**Nera ekarri digu. Argazkiaren jabeak, nahi badu **BARRE**Nen jaso dezake argazkia. Hemen agertzen diren lau neskek elgoibartarrak dira, eta dirudienez, pasiaratxo bat ematera atera ziren egun honetan. Gose garaia eta urte gogorra izan zen arren, irrifartsu ageri dira neska hauek argazkian. Ezin izan dugu jakin argazkia non aterata dagoen, baina beraiek zein diren ezagutzea lortu dugu. Gogora dezagun bada, zein diren argazkiko neska panpoxa hauek: Ezkerretik eskumara: **Pakita Unzueta (†), Juanita Garai (†), Maria Rementería (†) eta Mertxe Arregi (†)**.



#93

**DAGOENEO ABIAN DA #93. PROIEKTUA.
DEBA ETA MUTRIKU LOTZEN DITUEN ZUBIA.**

Inbertsioa: 11.300.000 euro

Lotzen duen proiektua, Deba hibelaren bi ertzak lotzen dituen zubi berria, elharrizgarri hurbilego egon gaitzen. Dagoeneko proiektuak heratago dagoen proiektua, Aparteko Inbertsio Planaren barruan aurrera doan errealitatea da. Elberko sailhasbide berria, edo Deba beldararaho futbol hobekuntza teknikorako zentroa, eta Elgoibarren aterperik ez duten pertsonel laguntzeko zentroa bezalaxe. Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.

Aparteko Inbertsio Plana.
Debabarrenan ere bai.

Aparteko inbertsio
plana 2024-2027



Plan extraordinario
de inversiones 2024-2027



Gipuzkoa Foru Aldundia
Euzakia Foru de Gipuzkoa

HORMAN S.L.



Bustindui-Tarren, 2-4-6 EIBAR

- ERAIKUNTZAK
- BERRIKUNTZAK
- PROIEKTUAK
- ETXEBIZITZAK
- FATXADAK
- TEILATUAK
- ZUZENDARITZA TEKNIKOA
- DIRULAGUNTZEN GESTIOA

San Andres, 3
EIBAR



Estaziño, 3
EIBAR



Otaola Etorbidea, 3
10. lokala
20600 EIBAR

Tel.: 943 82 04 07

Faxa: 943 82 07 24

depart.comercial@horman.info

